

Musika Modernoa Tailerra. (Combo-ak, Rock-a, Folk-a, Pop-a).



TOMAS GARBIZU

LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

Tel: 943 52 99 99 • tgarbizume@ lezo.net

Aurkezpena:

Tomas Garbizu Udal Musika Eskolak musika modernoa lantzeko tailerra aurkezten du (Folk, Rock, konboak, Musika Elektronikoa,...), musika eskolako ikasleen formazio osagarria eskaintzeko helburuarekin.

Formazio osagarri hau, norberak dituen musika trebetasunak, izaera honetako musika landuz garatzeko da.

Hezkuntza programa:

Klaseak gutxienez lau ikaslez osatutako taldeetan egituratuko dira.

Talde horiek ikasleen mailen, beharren eta helburuen arabera antolatuko dira, eta bakoitzaren formazio aukeren baitan garatuko dira

Gainera, irakasleekin astean ordu batekoak izango diren taldeek, dagokion ikasgelan asten ordu eta erdiko entsegu orokor baterako aukera izango dute.

Adingabeak diren ikasleak entseguetan helduren batengatik lagunduak izan beharko dute.

Egitarau didaktiko hau betetzeko helburuarekin, audizio ezberdinak antolatuko dira. Audizio horietan taldeek agertokia partekatuko dute zuzenen aritzeko lanetara egokitzen ikasteko eta, bide batez, bere formazioan izandako aurrerapenak ikusteko.

Lezoko Musika Eskolan izen-emandako ikasleek lehentasuna izango dute.

Informazioa:

- Hasiera: Azaroa.
- Amaiera: Maiatza.
- Iraupena: 22 saio, ordubetekoak.

Matrikula epea:

Urriaren 9tik 23ra

• Tasa:

Matrikula 21,43€ Ordu 1

(4 ikasle gutxienez).

Hilero 21,43€

(6 Hilabete)

Matrikula honen tasan, Musika Eskolako **ikasle ofiziala** denak %10eko hoberia izango du.

Lekua:

“Tomas Garbizu” Lezoko
Udalaren MUSIKA ESKOLA

Telefono zenbakia: 943 529999.

tgarbizume@lezo.net

Arretxene kalea, 3 LEZO